

TREBAKUNTZA 2023-06: MAIUSKULAK ETA MINUSKULAK

Udal idazki askotan letra larriak (maiuskulak) eta xeheak (minuskulak) oker idatzita ikusi ditugu (hilabeteetan, karguetan...).

Akats horiek zuzentzen hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. *2022ko **Ekainean**, **Uda** hasieran, gertatu zen ezbeharra.
2. *Bilera egin dute **Alkateak** eta alderdietako ordezkariak.
3. *Espainiako **Erregeak** eztabaida izan zuen Venezuelako presidentearekin.
4. *Elkarretaratzea Donibane **Enparantzan** izango da.
5. *Leitzako **udalak** hainbat udaletako eredia jarraitu du.
6. *Dena zegoen prest: mahaia, mikrofonoa... **ordua** iristean, hizlaria ez zen azaldu.
7. *291/2005 **dekretua**, urriaren 11koa, Etengabeko Ikaskuntzako...

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. **Hilabeteak, asteko egunak eta urtaroak** beti letra XEHEZ idatzi behar dira.
Ad. 2022ko **ekainean** (eta ez **Ekainean*), **uda** hasieran (eta ez **Uda*), gertatu zen ezbeharra.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Mendiburu kalea 14
Landetxe eraikina, 2. solairua
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

2. **Kargu ofizial eta akademikoak** beti letra XEHEZ. Salbuespenak: Arartekoa eta Lehendakaria.

Ad. Bilera egin dute **alkateak** eta alderdietako ordezkariak (eta ez **Alkateak*).

3. **Tituluak** beti letra XEHEZ.

Ad. Espainiako **erregeak** eztabaida izan zuen Venezuelako presidentearekin (eta ez **Erregeak*).

4. **Leku-izenetan**, izen propioa letra LARRIZ eta izen arrunta XEHEZ.

Ad. Elkarretaratzea Donibane **enparantzan** izango da.

5. **Instituzioen izen ofizialak** singularrean larriz eta pluralean xehetz:

Ad. Leitzako **Udalak** hainbat **udaletako** eredia jarraitu du.

6. **Etendura puntuak**, esaldiari bukaera ematen badiote, ondoren datorrena letra LARRIZ.

Ad. Dena zegoen prest: mahaia, mikrofonoa... **Ordua** iristean, hizlaria ez zen azaldu (eta ez **ordua*).

7. **Dekretu, lege eta erabaki** jakinak badira, LARRIZ; aipamenak badira, XEHEZ:

Ad. 291/2005 **Dekretua**, urriaren 11koa, Etengabeko Ikaskuntzako... (eta ez **dekretua*).

Ad. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi zuen 2000ko **dekretua** (eta ez **Dekretua*).

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektroniko: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Mendiburu kalea 14
Landetxe eraikina, 2. solairua
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699